



Txirrist barraskiloa

Kontatu: zure hitzekin

Irakurri: Bukaerarik gabe utzi ipuina, haurrari bukaera eskatuz...

Txirrist izena zuen eta oso barraskilo ausarta zen. Bazter guztietan sartzen zituen bere sudur mukitsuak.

Goiz batean, herriko alkateak ustekabean zapaldu zuen Txirrist barraskiloa eta krask! Etxea puskatu zion.

Txirrist barraskiloa negar eta negar hasi zen:

-Etxerik gabe geratuko naiz, gosez nago! Non pasa behar dut gaua?

Alkateak Peru artzainaren, Kosme alguazilaren eta Julian markesaren etxeak eskaini zizkion Txirrist barraskiloari.

Baina Txirristek ez zuen Peruren, Kosmeren eta Julianen etxeetan bizi nahi.

Orduan alkateak bere etxea eskaini zion, Txirrist barraskiloari bere etxea sendatzen zitzaion bitartean.

Eta Txirrist barraskiloa gustura geratu zen.

-Iuuupiiii!- esan zuen.

Alkatearen etxean hamabost egun pasa zituen oso gustura. Hamabost egun horietan etxea sendatu zitzaion eta Txirrist barraskiloak etxea izan zuen berriro, gaua pasatzeko tokia ere bazuen, eta ez zuen hotza pasako. Alkatea berriz oso kontuz ibili zen handik aurrera: hanka non ipintzen zuen ondo begiratzuz. Alkateak ez du gehiago barraskilorik zapaldu nahi.



Txirrist barraskiloa

Lasai doa bidean,

Adarrak eguzkitan

Lasai doa bidean, lasai doa bidean.

Alkate tripaundiak Txirrist ez du ikusi

Eta hanka baldarrez

Etxea dio hautsi, etxea dio hautsi.

Anjel Lertxundi